



ZTF-FCT

Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Facultad de Ciencia y Tecnología

Kimika Organikoa II Saila
Dpto. de Química Orgánica II
Jose L. Vicario



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Azidotasuna eta Basikotasuna

1. HCl-a HBr-a baino azido ahulagoa da. Zergatik da ClCH_2COOH -a, BrCH_2COOH -a baino azido sendoagoa?
2. Iodo, kloro eta fluor atomoek duten AcOH-aren azidotasunaren gaineko efektua azaldu Datuak: pK_a (H_2O) 25°C -tan: AcOH: 4,76; Azido Iodoazetikoa, 3,12; Azido kloroazetikoa, 2,85; acido trikloroazetikoa, 0,7;.azido trifluoroazétikoa, 0,23.
3. a) Etanoaren, etilenoaren eta azetilenaren pK_a baloreak 50, 44 eta 25 dira. Emaizta esperimetal hauek azaldu.
b) Etanoaren, etilaminaren eta etanolaren pK_a baloreak 50, 35 eta 25 dira. Emaizta esperimetal hauek azaldu.
4. “Konposatu organikoen azidotasuna, batez ere, desprotonazioaren ondoren eratzen den anioiaren egonkortasunaren menpe dago.” Kontzeptu hau kontuan edukiz ondorengo konposatuak azidotasunaren arabera sailkatu arrazoiak emanaz:
 - a) *o*-nitrofenola , *m*-nitrofenola, *p*-nitrofenola, fenola.
 - b) *p*-metilfenola, *p*-klorofenola, fenola, Etil *p*-hidroxibentzoatoa.
 - c) ziklohexanola, 4-kloroziklohexanola, 2-kloroziklohexanola, 3-kloroziklohexanola
5. “Aminen eta beste zenbait konposatu organiko nitrogenodunen basikotasuna nitrogenoaren gainean dagoen elektroik bikote askearen eskuragarritasuna aztertuz neurtu daiteke” Kontzeptu hau kontuan edukiz ondorengo konposatuak basikotasunaren arabera sailkatu arrazoiak emanaz
 - a) Anilina, *N*-fenilazetamida, *p*-aminofenil metil zetona, Etil *p*-aminobentzoatoa.
 - b) Anilina, *m*-nitroanilina, *p*-nitroanilina.
 - c) Metilamina, anilina, piperidina, azetamida.